



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
178. zkia . 2005eko iraila



ZORIONAK AMA GUADALUPEKOARI!

4-11. Herrian barrena

12-13. Elkarrizketa: J. M. Klemente

16-17. Kontxako bandera

20-21. Hendaiko gurutzea

27. Gazte Informazio Bulegoa

30-31. Abuztuko Demografia

JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20260 HONDARRIBIA

Tel. 943 64 77 71
943 64 10 19



San Pedro, 35
Tel. 943 11 02 01
www.barconchita.com

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



**gizarte ekintza
obra social**



Allprox
SUNSUNDEGI

Tel. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI

TABERNA - JATETXEA



Eguneko menua

Menu bereziak

Karta

Gure terrazak goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Martxoaren 28ra - Tel. 943 64 53 64
20291 HONDARRIBIA (Gimadoko)



Errebellin kalea 3 behea

Tel. 943 64 48 00 • Lantegiko Tel. 943 64 56 45 • Faxa 943 64 44 97

20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO UDAL EUSKALTEGIA



Marian Amunarriz

2005-2006 ikasturtea hasi berria dugu, oraingoan ere ilusioz ekingo diogu lanari. 14 urte daromatza Hondarribiko Udal Euskaltegiak bere jardunean, eta herritar asko izan ditugu ikasle bertan egunero, bere denbora eta gogoia eskainiz euskarenean ezagutza eskuratzeko eta hitz egitea lortzeko asmoz. Haiei esker oso jatorri, izaera eta helburu ezberdineko pertsonak ezagutu ditugu: euskaldun zahar nahiz berri, bertako nahiz atzeritar eta gazte nahiz heldu.

Urte hauetan bilakaera bat izan dugu, gure euskara ikasteko eskaintza zabaldu egin baita: Gizarteari begira tituluak ugaltu egin dira eta horiei irteera emateko zenbait ikastaro sortu ditugu. Bestetik gure eskaintza herriko eskaerari egokitu nahian erritmo ezberdinak sortu ditugu: asteen bi, hiru edo lau egunekoak, egunean 2, 2'5 edo 3 ordukoak, etab. Horrek gurera jende gehiago hurbiltzea ekarri digu.

Zein den gure helburua? Epe motzera begira ikastaro honetan izena eman duen jende guztiari behar duen arreta ematea, haiek dituzten asmoak guztion artean betetzen laguntzea eta giro atseginean denok

lan egin ahal izatea. Ez da kontu txikia. Epe ertainera begira euskaltegiaren presentzia herrian bizia izan dadila, hau da, herriak ondo jakin dezala euskara ikasi eta hobetzeko bere esku duen zerbitzu bat bertan duela. Eta epe luzera begira euskara bere bizitzan urruti duen herritarrari hurbiltzea, eta hobetu nahi duenari bidea eskaintzea, gure hizkuntza zabaltea alegia.

Gure kezka? Datorren klaseari forma ematea, gugandik urruti samar ikusten dugun ikasle horrenagana hurbildu ahal izatea eta etsita dagoenarekin hitz egin, mundua konpondu eta barre egitea.

Eta zein den eragina? Elkarrenganakoa, eguna joan eta eguna etorri elkarlanak ematen duen ezagutza eta hizkuntzarekin aritu eta gozatzea. Eta jakina, herritar gehiago euskaratik hurbilago bizitzea.

Hementxe gaude, betiko tokian, Inaxiorekin idazlana-ren gainean hitz egiten, Ana animatzen, Aitorri deklinabidearen nondik norakoa azaltzen eta aurtengo sagardotegiko afaria prestatzen.

Animatzen bazarete bertara hurbildu edo deitu.

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

zifcomunicación@terra.es

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Xabier Aranburu

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Andoni Rael

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK URRIAN

2- ERAUSKIN San Pedro, 22943 641018

9- MAYI MARTINEZ Almirante Alonso . .943 642191

12- ALMAJANO Mendelu, 2943 640068

16- IRAOLA San Pedro, 5943 641027

23- FIZ Sokoan943 644316

30- ALMAJANO Mendelu, 26943 640068

TXANDAKO OKINDEGIAK URRIAN

2- MARTINEZ Kale Nagusia, 17943 641212

9- ARRATIBEL Mendelu auzoa943 641975

12- GARMENDIA Portuan . . .943 641136

16- MARTINEZ Kale Nagusia, 17943 641212

23- ARRATIBEL Mendelu auzoa943 641975

30- GARMENDIA Portuan . . .943 641136

Txingudi egunak edizio berri bat ezagutu du

*Hiru hirietako elkarteek antolatu dituzte ekitaldiak

Uda amaitzen denean azken urte hauetan Hondarribia, Irun eta Hendaia bizi-eremuak hitzordu bat izaten dute Txingudi Egunarekin. Hiru hirien anaitzea bilatzen den egun honetan, zenbait aldaketa ikus ahal izan ditugu aurtengoan. Horien artean, nagusia antolamendua izan da.

Orain artean Bidasoa-Txingudi Mugazgaitzaileko Partzuergoa izan bada, iaztik hiru hirietako elkarteek bultzada ematea erabaki zen, eta horretarako hainbat bilera mantendu dira.

Nobedade ugari izan ditu aurtengo edizioak. Lehen aldiz, emakumez osatutako arraun txapelketa bat ospatu da. Hondarribia Arraun Elkarteak, Santiagotarra eta Hendaikako neskez gain, Isuntza, Zumaia eta Mutrikukoak elkartu ziren kirol ekitaldi deigarri honetan. Josebe Carcavilla izan da koordinatzailea, eta bere eritziz "jendeak erantzun positiboa eman du. Ekitaldi ugari ospatu dira, eta eguerdian Benta Zaharrean egin genuen bazkarian 500 pertsona baino gehiago bildu ginen".

Horren ostean, arratsaldean Kemen eta Eraiki Dantza Taldeen emanaldiak ikusi ahal izan genituen, eta iluntzean, San Pedro kalean, zezen suzkoen entzierroa, txaranga eta trikitixez lagundurik.

Erraldoiek Txingudi egunean parte hartu zuten



Enrique Albizuren erakusketa Udaletxeko Areto Nagusian

*Irailaren azken egunerarte irekita egongo da



Erakusketa Udaletxeko Areto Nagusian aurkitzen da

Enrique Albizu Perurena artistak irailaren 7an "Hiriko Urrezko Intsignia" jaso zuen Areto Nagusian. Ekitaldi hunkigarri batean pintorearen bizibidea eta obra azaldu zuen Javier Aranburuk han bildutako publiko ugariaren aurrean. Gune berean margolari ospetsu honen erakusketa bat zabaldu zen irailaren 12an, hilabetearen amaierararte zabalik egongo dena eta orain arte arrakasta handia izaten ari da.

Koadro hauek Hondarribiko irudiak eta herriko pertsonaia ezagunak irudikatzen dituzte, batez ere, arrantza munduari lotutako gaietan. Albizuren koadro nabarmen hauek familiaren kolekzio pribatuatik ekarri dira. Gogoratu irailaren azken egunerarte irekita egongo dena, goizeko ordutegian, 9,00etatik 13,00etara.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Jaietako lehiaketetako garaileek sariak jaso zituzten

Irailaren 10ean, jaietako lehiaketetan garaile suertatu zirenek beren sariak jasotzeko aukera izan zuten. Udal Batzar Areto Nagusian izan zen ekitaldia. Garaileak hauek izan ziren:

KARTEL LEHIAKETA

1. Iñigo Ibargoin Heras.
2. Leire Kanpandegi Guerrero

ARGAZKI LEHIAKETA

1. Jose Martín Larrañaga Iza.
2. Xabier Alcorta Begiristain.

BALKOI LOREDUNEN LEHIAKETA

1. Maite Rekarte Olazábal, Soroetaberri, 4-3B
2. Arantza Guevara de Juan, Gibeleta, 5 - 1
3. Miren Elixabete Guezala Goikoetxea, Butron Pasealekua, 2 - 3C.

ERDI AROKO AZOKAKO ARGAZKI LEHIAKETA

1. Ernesto Larrarte Parrondo.

GRAFFITI LEHIAKETA

1. Jose M^a Antxordoki, Gorka Pravos eta Ramón Alvarez.
2. Marta Intxausti, María Narvarte, Kattalin Agueda eta Uxue Pascual
3. Ibinka Lete, Iñigo Villanueva, Jon Perez eta Iñigo Jauregi.

HAUR GRAFFITI LEHIAKETA

1. Beñat Lapitz, Martxel Sagarzazu eta Endika Amunarriz.
2. Arrate Garmendia, Ana Luisa Rubio, Larrait Altuna, Maddi Olaizola eta Ainhoa Lapitz.
3. Mikel Busto, Andoni Txintxurreta eta Jon Muguruza

Sariak irailaren 10ean jaso ziren Udaletxean



Maite Rekartek irabazi du Balkoi Loredunen lehiaketa

*Bigarren saria Gibeleta auzora joan da

Maite Rekarte Olazabal herritarrek irabazi du Balkoi Loredunen lehiaketa. Ondorioz, sari bat eta 200 euroko txartela landariak erosi ahal izateko jasoko ditu Soroetaberri 4. 3B etxean bizi den emakumeak. Iazko edizioan, garailea bere behean bizi den Kontxi Borreguero izan zen.

Liborio Aramburu eta Jose Angel Lacalle izan dira epaimahaian egon direnak. Beren erabakiz, bigarren saria Gibeletara joan da, Arantza Guevara de Juanen balkoira. Berari dagokio, 150 euroko txartela landareak erosteko.

Hirugarren saria, Butroi pasealekuko balkoi batek eraman du, Miren Elixabete Guezala Goikoetxearena hain zuzen. Honek, sariak gain, 100 euroko txartela jaso du.

Bestalde, Ostalaritza eta Komertzioari zuzendutako sariak ez du irabazlerik izan. Iaz San Pedro kalean dagoen Maite tabernak jaso zuen



Goiko aldean, Maite Rekarteren balkoia, Balkoi Loredunen irabazlea

Emeki Elkartek ikastaro berriak antolatu ditu



Ikasleen lanak erakusketa batean

Uda amaitu bezain laister, urtero Emeki elkarteak ikasturte berri bat hasten du. Ikastaroak urriaren lehenean hasiko dira, eta nagusienak hauek dira: esku lanak, jantzigintza, farfailak, mus, ehungintza eta ingelesa.

Ikasturte bukaeran, egindako lanak aurkeztu ohi dira herriko areto batean

Hala eta guztiz ere, ikastaro berriak nahi izanez gero, Emeki Elkartetik deialdia luzatzen zaie hiritarrei beraiekin harremanetan jartzeko, proposamenak jasotzeko prest baitaude.

Izenak emateko epea irailak 20tik-30era (biak barne) izango da eta ordutegia arratsaldeko 17.00etatik 19.00etara, Emeki elkartean, San Pedro, 37 - 2. edo e-mailez: emeki@kzgunea.net. Telefonoz egiteko aukera dago ere, 943 643402 zenbakira hots eginez.

Hondarribiko ikasle kopuruak gora egin du

Herriko jaiak amaitu bezain laister, urtero bezala ikasturtea berriro hasi da. 2005-2006 urte honetan, Ama Guadalupekoa, Talaia eta San Jose ikastetxeetan ikasle gehiago egongo dira, %2,8 matrikula gehiago egon baitira kurtso honetan.

Hori ulertzeko, kontuan izan behar da azken bi urte hauetan jaiotza tasak gora egin duela. Honen eraginez, ume gehiagok bere izena eman dute eskoletan.

Era berean, 2.254 ikaslek 18 urte arte beren ikasketak Hondarribian burutuko dituzte. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoan banatzen dira ikasle gehienak, baita Lanbide Heziketan ere.

Kurtso honetan 2003-2004koa baino 63 matrikula gehiago egon dira.

Hiru zentroetatik, Talaia da ikasle gehien dituen. Bordarin (lehen Pedro Aginagalde zena) Haur eta Lehen Hezkuntza ematen da 2tik 12 urtetara 795 umerekin. Kurtso honetan aldaketa bat egongo da, Bordari zentroak berri-tze lanak jasango ditu eta Talaia Biteri zentroan Bordariko ikasleak hartuko ditu lanak pasa arte.

Igoera honen ondorioz, Haur Hezkuntzarako bi zentro berri egin dira, Puntaleko Ludotekan ikasiko dutelarik.



Ikastetxeek ikasleen gorakada ikusi dute

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?
NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...
EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO
20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK
BAKARRIK
3,58.-euro
foto FRANAN
 Zuloaga, 4
 Anbulategiaren parean
HONDARRIBIA

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 5 • 943 64 27 77

Hondarribiko ontziteria Andaluzian kanpaina jarraitzeko zalantzan dabil



laz izandako arazoen giro arraroa sortu dute arrantzaleengan.

Denboraldi honetan bertako ontziteriak ez dauka oraindik erabaki bat hartuta Gribaltarrean egiten den atunen arranza-aldiaren kontuan.

Hondarribiko ontziteria Kantauri itsasoan arrantza denboraldiko bere azken astea agortzen ari da, Europako Batzordeak espezieak berreskuratzeko hartu duen erabakia heldu aurretik. Ebazpena abenduan aterako da.

Joan den urtean Cadizeko itsasertzera joan ziren Hondarribiko sei ontziek harrapaketa urriak izan zituzten; horregatik, hamar urtetan egon den joera geldiarazi du. Egonaldi hartan andaluziarren arrantza ontziekin euskaldunek arazo batzuk izan zituzten bere uretan arrantzan aritzeagatik. Algeziraseko atunketariak bere lanak utzi zituzten eta portura erretiratu ziren kexu moduan.

Arazo honek ez du eragin haundiegirik izan arrantzaleengan bere lanak egiterako orduan, nahiz eta ez den girorik egokiena lanean aritzeko.

Bentaren ingurua aldaketak jasateko prest

Hondarribiko Udalak Itsas Etxearen inguruan dagoen zonaldean prestatu duen proiektua aurrera eraman nahi du. Hiriko gune estrategiko bat da, duela zenbait urte hiritarrek eskatzen duten osasu zentru egoki bat edukitzeko eskaerari aurre egiteko aukera ematen baitu.

Jauregi alkateak proiektu hau "une hauetan hirian daukagun garrantzitsuena" dela esan zuen. "Itsas Etxea haunditu, herriak behar duen bezalako osasun zentru bat eduki, eta gainera bertan ekitaldiak egiteko areto berri bat izango genuke".

Proiektua garatzeko, Udalak arte eszenikoetan aditutako enpresa bati txosten bat egitea eskatu zion, prestatu den proiektuak Hondarribiak daukan potentzialitatea bermatzen duen edo ez jakiteko. Txostenak dioenez, proiektua ongi dago, baina espazio falta nabaritzen da. Arrazoia, alde batean Portuko Eliza dagoela, eta beste aldean, arrantzaleen karroa deitzen dena. Azken honek, proiektu osoa garatzea kolokan jartzen du, toki falta nabaria izango litzateke eta.

Udalak prestatu duen proiektuan, lurpean joango litza-tekeen 500 kotxerentzako aparkaleku bat aurreikusten da era berean. Karroaren kokapenaren arazoa ez da konpondu oraindik, eta soluzioak bilatzen ari da udala. Horien artean, agian karroa Pasaiara eramatearena.

Proiektuan, aparkaleku bat egitea aurreikusten da



AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Jose Luis Zabalak "Hondoxka" gabarrarien dokumentala egin du

*"Islandia" eta "Tierra y Fuego"-rekin batera, Festival del Riu Jaialdian erakutsi dira

Jose Luis Zabalaren "Hondoxka" eta Agustín Cirizaren "Islandia" eta "Tierra y fuego" dokumentalak Festival del Riu VI. Jaialdirako aukeratuak izan dira, 12 herrialdeko beste 38 lanekin batera. Jaialdia irailaren 21etik 25era bitar-



Gabarrarien dokumentala Katalunian aurkeztu da

tean egin da Tortosan (Katalunia), eta bertan ibaiek eta ur gezak bizitza eta kultura iturri gisa duten egitekoari buruzko errealizazioak eman dituzte. Aipatu dokumentalak Jaialdiaren ataletako batzuetan aurkeztu dira: "El río es la vida", "La fuerza del río", "Río y aventura" eta "Tierras del Ebro".

Hondoxka 75 minutuko errealizazioa da, Bidasoa

ibaian zehar egindako bidaia bat jasotzen duena. Bidaia Hondarribian hasi eta ibaian gora Hendaia, Irun, Urruña eta Biriaturtik igarotzen da, Endarlatzara iritsi arte. Bitartean, garai bateko gabarrarien kontakizunak entzuten dira; 1936tik 1965era arte hondar-saltzaile, arrantzale, itsaskilari, nekazari, angula-arrantzale eta kontrabandista izandakoen bizipenak. Horrez gain, dokumentalak jada desagertua eta seguruenik ezezaguna den gabarra bidezko garraio mota bat erakusten digu.

Bien bitartean, "Islandia" eta "Tierra y Fuego", 20 eta 30 minutuko errealizazioak hurrenez hurren, muturreko kayak-jaitzierak jasotzen dituzte Islandia eta Norvegiako ur-laster eta jauzietatik.



Hondarribian gabarrariak garrantzi handia izan zuten XX.mendearen

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel.943 64 27 38

Foto Sistema

ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Isasargi 3
Tel 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

Udalak Erreginaren gotorlekua ireki nahi du

*Gipuzkoako Ahaldu Nagusia den Joxe Joan de Txabarri bertan izan zen

Udalak Erreginaren gotorlekua jende-ari zabaltzeko pres-tatu duen proiektua aurrera doa. Gipuzkoako Ahaldu Nagusiaren bisita jaso ondoren, Udalak bere konpromisoa du proiektu honetan elkarlanean aritzeko.

Jauregi alkateak aipatutako tokian, Biteri Ikastetxearen

aurrez aurre, daukan asmoa azaldu zion Ahaldu Nagusiari. "Materiale arinak erabiliko dira, egurra eta altzairu herdoilgaitza. Pasabideei esker, zirkuitu bat jarriko da, eta sarrera erraztuko ere, Alde Zaharretik edo Gernikako Arbolaren lorategitik.

Proiektuaren barnean, gotorlekuaren behekaldea zeharkatzen duen galeria publikoari irekiko zaio. Jauregiren esanetan, "egin behar den lana ahal den kontu handienarekin egingo da. Harresia historia utzi diguna da, hori dela eta ez dira harriak kendu edo jarriko, bakarrik bazter batzuetan errematatuko dira".

"Proiektu hau oso interesgarria izango da kultura zein turismoaren ikuspuntutik. Gainera bizilagunek probetxua aterako dute goiko pasabidean berdegune bat egongo delako eta hortik pasatzeko aukera izango dutelako" amaitu zuen Alkateak.

Erreginaren gotorlekuko proiektuaren kostua gutxi gora behera 1,8 milioi euro zuzenduko dira. Jauregik Joxe Joan González de Txabarri hiru aldeko akordioa proposatu zion Udala, Eusko Jaularitza eta Gipuzkoako Foru Aldundiak parte har dezaten.

Erreginaren gotorlekua Hondarribiko historiarekin lotuta dago



Kirol Kaiak gune komertzial bat izango du

Duela hilabete batzuk hasi zirela Kirol Kaiaren inguruan haunditze lan batzuk. Hondartzako kirolgunean skate parke bat egin ondoren, futbol zelaiaren ondoan atletismo pista bat eta mountain bike-an ibiltzeko gune bat egingen eraikitzeke lanekin jarraitu. Obra guzti hauek "Ibargoien eraikuntzak" enpresa burutzen ari da.

Kirol portuko gune komertziala aldez, Amenabar eraikuntza enpresa egingen ari da. Sustatzailea aldez, Euskadiko Kirol Portua S.A. da.

Proiektuan bi altuera bereizten dira: erdisotoa eta beheko solairua. Lehenengoan, arkupe estali batean lokal komertzialak eraikiko dira; gainera aldez, ostalaritza edo kafetegiarentzako izango da. Solairu honek, Ramon Irribarren pasealekuaren altueran dagoenak, ez du hiru metro baino gehiago izango.

Egun eraikitzen ari diren bi pabilioietan, 14 lokal joango dira, lehengoan zortzi eta bestean sei. Merkataritza-lokalak erdisotoan kokatuko dira, txikienak 85 metro karratu izango dituelarik eta haundienak 185. Hauen gainean, jatetxeak eta kafetegiak eraikiko dira.



Gune komertzialak egingo diren pabilioiak



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEA

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA
INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



San Pedro 4 behea
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Euskaltegiak ikastaro berriari ekin dio

Udal Euskaltegiak matrikularen epea ireki du 2005-2006 ikasturteari begira. Azken urteotan bezala, eskaintza oso zabala da: alfabetatze kurtsoak, Osa-kidetzaren, Hizkuntza Eskolaren tituloak lortzeko prestaketa, maila guztientzako ikasketak, eta abar.

Matrikularen prozesuan beka sistema bat aurreikusten da. Honekin, eskatzen duenak Udal Euskara Zerbitzuaren bidez %75 bete ahal izango du, edo HABE-ko azterketak gainditzen baditu kantitate guztia. Eskaerak zentro berberan, Biteri kalean 20. zenbakia dagoena, egin behar dira. Informazio gehiagorako, 943 64 12 16 telefonora deitu.

Euskara ikasteko Euskaltegiak teknika eta baliabide oso aurreratuak dauzka. Klaseak sendotzeko, zibergelak dauzka, etorkinentzat, merkatarientzat, ostalarientzat eta ikasleentzako gurasoentzat kurtsoak ere daudelarik. Hala-ber, beraien zentroan egiten diren irakasleentzako kurtsoak ere egiten dira.

Ordutegi aldetik Euskaltegiak malgutasun haundia dauka. Gurasoen kasuan, eskoletako ordutegian egiteko aukera eskaintzen da. Pertsona gutxientzako taldeak ere daude, baina hau matrikularekin lotuta dago.

Baina guztia ez da bakarrik ikastea. Zentroak beste zenbait jarduera antolatzen ditu: irteerak eta konferentzietara joateko aukera ere dago.



Euskaltegiko kanpaina

Udalak Autorik Gabeko egunean parte hartu du



Jendeak bizikleta erabiltzea nahi da

Hondarribiak bere Udal buruan duelarik, Europako Mugikortasun Jasangarriaren Astearen parte hartu du. Kontinente osoan irailaren 16tik 22 ra ospatu da. Hiritarak automobilaren erabileran kontzientziatu asmoz, Bidasoa Bizirik-etik zenbait jarduera antolatu ziren. Honela, ingurugiroa errespetatzen duten beste aukerak, bizikleta edo oinez ibiltzea kasu, indartu nahi zen.

Maite Pelaezek, Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak esan zenez, "Udalalde 21 programatik diagnosi bat egin zen asmo honetan zer nolako neurriak hartu behar diren jakiteko. Bidegorri gehiago egitea eta kontenedore edo argiak aldatzea dira honen helburua".

Lehen neurri bezala, Udalak gutxiago kontaminatzen duten kale-argiak dagoeneko jarri ditu. Bere argiak lurrera zuzentzen dira, eta horrela, errentagarritasun gehiago lortzen da, energia gutxiago kontsumituz. Irailaren 22-an Hondarribian zenbait ekintza egin ziren. Beste zenbaiten artean, hirian zehar edo Irunera joateko autobus bidaiak dohain eskaini ziren eta hainbat erabiltzailerik zorrodun bonobus bat oparitu zitzaion.

Txikiei zuzenduta ere jarduera batzuk antolatu ziren era berean. Haurrak kontzientziatzeko antzerki bat egin zen Santa Maria Magdalenako plazan. Antzerkia 4tik 10 urte bitarteko umeentzat zuzenduta izan zen eta han irakatsi zitzaion ura nola kontsumitu behar den, zenbat kontaminatzen duen automobil batek edota nola egin behar den birziklaketa prozesua.

pa
Inmobiliaria
gestoría
administración de fincas

pérez alkain

WIKELAN 100 100
JARDURA HONDAKIA
Tel.: 943 64 21 57
943 64 21 57
www.perezalkain.com

Jatetxea

Gran Sol

- Sukaldaritza tradizionala
- Eguneko menua
- Karta

San Pedro kalea 63
Tel. 943 64 70 75
20280 HONDARRIBIA

Turismoak gora egin du uda honetan Hondarribian

Irailaren 22an amaitu zen ofizialki uda, baina ikuspuntu turistikotik denboraldia aste bete lehenago itxi zen, datuak irailak 15a arte hartzen baitira kontuan. Turismo Bulegotik udako denboraldiko balantze moduko bat bidali digute, eta emaitzak oso onak direla ziurtatu digute.

Cristina Gutierrez, Turismo Bulegoko zuzendariaren hitzetan, "oso emaitza onak lortu dira aurtengoan. Igoera nahiko haundiak izan ditugu. Hondarribiko Turismo Bulegoan, uztailetik irailaren 15 arte, 19.986 konsulta jaso dira, iaz baino 3.851 gehiago. 30.495 pertsona inguru konsultak egin dituzte, eta 2004ean 23.244 izan ziren".

Bisitarien jatorria gehiena nazionala izan da, %76,40, batez ere Katalunia, Madril, Gaztela Leon, Valentzia, Aragoi eta Andaluziakoak. "Aurtengo azken komunitate honetatik gorakada handia izan da" esan zuen Gutierrezek.

Bien bitartean, Irunen udan jartzen den behin behineko bulegoan, uztailaren 4an zabaldu zena, 3.484 konsulta jaso dira, joan den urtean baino 1605 gehiago. Orotara, 9.147 pertsona, hauetatik %32,38, Katalunia, Madril, Euskadi eta Andaluziatik etorritakoak. Bestalde, % 67,62 atzerritarrak izan dira, Frantzia, Italia, Alemania eta Belgikatik etorritakoak gehienbat.

Okupazioari buruz jaso diren datuak:

2005	Eskualdea	Hotelak	Hondarribiko hotelak	Irungo hotelak	Egonaldiak
Uztaila	81,84%	84,30%	89,91%	80,94%	2,04%
Abuztua	91,06%	90,60%	94,58%	88,07%	2,97%

Biztaleen kopurua

	2005 bisita kopurua
Uztaila	154
Abuztua	311
Irailaren 6ra arte	47
TOTALA	512

Esan behar da, bisita gidatuak gaztelaniaz, katalaniaz eta frantsesez egin direla.

EXPERT GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BULDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAI-
RUA ETA GORDELEKUA...

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN"!!!

Hondarribia Arraun Elkarte • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

JOXE MARI KLEMENTE

Hondarribiko DYA



Urte osoa lanean emanda, langile finaren saria udako oporrrak izaten dira, baina bada uda eta negu, gau nahiz egun, bere lana ahalik eta ongien egiten saiatzen denik, trukean oporrik ez izanagatik ere. Batzuek jaiez edo kirol jardueraz gozaten dugun bitartean, beste batzuek orduan izaten dute lan gehiena, eta zaku honetan sartzen dira Hondarribiko DYAk kideak. Horren berri eman zigun Joxe Mari Klementek, Hondarribiko DYAk lehendakariak, eta hona jarraian bere ahotik jasotakoak.

Nolako izan da udako denboraldia?

Arrunta, guk udan ez dugu hondartzako zerbitzurik betetzen eta udak guretzat ez du aparteko lanik suposatzen. Gerta daiteke astebururen batean lan gehixeago izatea udatiarrak ditugulako, baina gainerakoan berdintsu ibiltzen gara urte osoan. Belaskoenea auzoko jaietan izan gara, Bidasoa taldearen partiduetan eta Santiago kaleko jaietan ere bai, besteak beste. Bidasoa eskualdeko beharrei erantzuten diegu eta Gurutze Gorriarekin batera betetzen ditugu zenbait zerbitzu, Hondarribiko jaietakoak, adibidez.

Gurutze Gorria aipatuta, zein dira DYA eta Gurutze Gorriaren arteko aldeak?

Garai batean bazen bien arteko "lehia" moduko bat, baina egun DYA osatzen dugunok eta Gurutze Gorrikoek elkarlanean dihardugu. Hondarribiko festak iristen direnean, udalarekin bildu ohi gara jaietan sor daitezkeen beharrrak koordinatzeko eta bien artean alderik ez dagoela esango nuke. Inoiz lehiarik izan bada, gainera, eskualdeko osasun zerbitzua-ren mesedetan izan delakoan nago; gure eskualde honetako osasun zerbitzua goi mai-

lakoa da, ez zaigu inolako zerbitzurik falta.

Zenbat lagunek osatzen duzue Hondarribiko DYA? Nola dago antolatua?

Guztira 20-30 lagun gara eta hilabetea 4 talderen artean banatzen dugu, era honetan, hilabeteko asteburu bakar bat ere zintzilik gera ez dakigun. Taldeko kideez gain parte hartu nahi duen beste norbait laguntzeko prest azaltzen bada, hura ere pozik hartzen dugu. DYAn dabilzan lagunak 18-65 urte bitartekoak dira; adin txikikoak ezin ibil daitezke anbulantzian, baina bestelako zerbitzu bereziak egin ditzakete (partiduetako zaintzak, kros lasterketetan lagundu,...) eta berdin gertatzen da 65 urteko edo nahiko helduak diren lagunekin ere.

Zein dira dituzuen baliabideak?

Garrantzitsuena, Hondarribiko udalak utzitako lokala da, Soroetagainen duguna, eta esku-ratzea asko kosta zitzaiguna, gainera. Lehenago, ordea, Bernat Etxepare kalean ginen, Arrantzaleen Kofradiak utzitako lokal batean, eta sekula ez diegu behar adina eskertuko kofradiakoei orduan egin ziguten

mesede ikaragarria. Lokalarekin batera, 2 anbulantzia ere baditugu (nahiz eta batzuetan motz geratu) eta jende askok luzatzen digun laguntza: kaleko jendearena, udaltzaingoarena, udalarena, bide batez bere eskuzabaltasuna eskertu nahi diogun Erauskin farmaziarena, hainbat erakunderearena,... Aukera dudanez, gainera, argi utzi nahi nuke Hondarribiko DYAk lehendakaria naizen arren, askotan ez naizela leku guztietara iristen, baina jende arduratsuz inguratua nago eta horien artean Emilio Zamarreño ez nuke aipatu gabe utzi nahi, lan aparta egiten ari baita eta inork baino hobeto ordezkatzeko bainau nik ezin dudanean.

DYAn parte hartu nahi duen edonork, ze baldintza bete behar ditu?

Urtean 2 sorospen-ikastaro egin behar dira, bakoitza hilabete batekoa; bata, Hondarribian antolatzen dugu, eta bestea, Irunen. Halaxe, ikastaroak egin ondoren, sorospen-txartela ematen dugu, sarrerafitxa bat egin eta ez da beste ezer behar. Gidari izateko, berriz, gutxienez B-2 gidabaimena behar da.

Edozeinek balio al du DYAn aritzeko; gaitasun berezirik behar al da?

DYAn sartzea ez da zaila, baina bada lehenengo larrialdiari aurre egin ezin dionik ere; praktika gauza bat da eta errealitatea bestea. Gainera, jende ezagunari laguntzea zailagoa gertatzen da. Gutxiak uzten dute, baina kasuak badira.


Zuentzat ohikoak dira auto istripuak, bihotzekoak,... baina gogoan al duzu gertatu zaizuen kasu arraroren bat?

Bat baino gehiago, bai. Gogoan dut, esaterako, behin jaso genuen abisua eta pasa nuen trantze estua. DYAn sartu berria nintzen orduan eta auzo-bide batean gorpu bat zegoela zioen dei bat jaso genuen. Bertaratu eta urte bete hilik zeraman gizonezkoa, alajaina; ni bezalako hasiberri batentzako modu-moduko

kasua izan zen hura. Hala ere, gauza xelet break ere pasa izan dira; neskak bati gertatu zitzaion ezbeharra, esaterako. Dantzan zebilela belauna hautsi eta neronek lagundu behar izan nion. Galtzak zeramatzan soinean eta bere belaunaren egoera jakiteko galtzak guraizez moztu behar nizkiola esan nionean, "pero si son unos

Levi's!!!" erantzun ez zidan, bada! Belauna edo praka-parea, baina bietako bat aukeratu behar zuela esan nion. Gaixoak ez zuen ondo pasa galtzak ebakitzen nizkion bitartean.

Kontuak kontu, eskerrik asko Hondarribiko DYAkoei, ezagun edo ezezagun izanda ere, denoi zerbitzu bera eskaintzeagatik eta larrialdi mota guztiei aurre egiteagatik.



Ainara Elizondo



Hondarribiko DYAk lehendakaria

EL TXOKO DEL ACEITE
PARQUE OLIVA
SERIE ORO

C/Almirante Alonso - HONDARRIBIA
Tel: 943 640 366 - Móvil: 670 725 995

Espainiako historian olio sarituena

M.A.G.
ASESORIA AGINAGALDE

GESTIÓN:
CONTABLE,
FISCAL,
LABORAL
* SEGUROS

GESTIOA:
* KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
* ASEGURAK

San Pedroren irudia puskatu egin dute



Martin Iturbe

Nahigabez samindurik eta haserrearen erasoak leher ez dadin ahalegiñak egiten ari naiz. Hermandadean, arrantzaleek beren biltoki nagusia duten etxe horretan, kale batetik besteera igarotzeko duen zubitxoaren bizkarrean, Matxin Artzu kalera begira, hantxe ezagutu nuen irudi polit hura.

Kabia goxo bate antzera "Txoko goxo" egiña zeukan; eguneroko bere bizi-lekua. Artista baten begi-neurriz neurtuta, balio haundiko irudia ez zen izango. Hala ere, eskura zaizkugun gauzen balioa ez du alderdi bakar batek erabakitzen. Geurea ziagun zerbait, gure bizitzako, herriko edo eta talde jakinbatentzat ezaugarri izandatzaren dugunean, artistaren bagiak hartzen duen baño zelai zabalagoa besarkatzen du eta sentimenduen mundua argitzen eta goxatzen badigu, ondasunik haundienen pareko gerta ohi zaigu zerbait hori.

Nere iritziz, arrantzalegoaren ezaugarri izatearen lekua betetzen zuen -betetzen du- hermandadeko peretean kokatua ezagutu dugun San Pedroren irudi horrek: Eta, "San Pedroren irudia puskatu egin digute", bai, "digute".

Gau illun batean gertatu zen guztia. Propio hartaraxe joan zen - ziren- haundikeria hori egin zuena - zutenak-.

Egia esan, gau illunak eta gaueko iluntasunak ez dit, oraingoz behintzat, beldur gehiegiarik ematen.

Esku illunak, inoren begietatik ihes dabillenak, besteren bizkarretik bere burua ezkutatzaren duenak ematen dit, nik ez dakit zer...

Irudia zegoen lekutik ezin zitekeen esku soillez hartu. haga luzeren batekin, edota bata bestearen bizkarre-
ra igozo atera zuten zegoen lekutik...

"Puskatu egin digute, bai, pusketara bihurtu dute". Bururik gabe geratu zen, hain zuzen, lurrean etzanda.

Buru berria nork egin ote zezaikeen galdezka bertako arduradunek hasi zirenetik laister, horra hor: "Harrigarria edo miragarria", agian biek batera, gure San Pedroren burua, Bidasoa ibai-ertzeko pasealekuan, kale-garbitzaile batek aurkitu zuen.

Ikusten denez, ostika eraman zuten.

Dena den, azkenean gauzak berean uzteko bidea irekia geratu da.

Nere gogoeta zorabiatuaren ametsetan, haxe ere pentsatzera iritzi naiz:

"Horrelako okerrik ezin lezake egin hondarribitar batek". Egia. Egoerarik kazkarrenean ere, bihotzean daramaguna ez da txarrera lehertzen. Eta hondarribitar guztiok bihotzean daramagun irudia ez du etxeko inork puskatu.

Zorionez, Hondarribia leku estimagarria denez, jende asko etortzen da bertara.

Zorritzarrez, tartean, tartean, jaietako jantzia zarpaildua daramaten norbaitzuk, egiten dituzte "azio" bikain hoiek.

Eta guk ere ez al dugu eskubiderik, zer arraiio!!!, pakean dagoena utz dezaten eskatzeko ???

Irudimenez jostetzen nabilenez gero, eta ezaugarri eta sinboloak eguneroko erabil-gaiak ditudanez, irudikapen haxe geratu zait buruan jostalari:

San Pedroren irudiarekin egin duten itsuskeriaren egileak zeruko atera agertzen direnean, eta, atea jotzean, San Pedro bera ateratzen zaienean, ezingo diela aterik ireki, eta irrifar bihurriaz esango diela:

"Gau ilun bateangiltzak galdu zaizkit. Esan ere esango nuke, norbaitek kendu dizkidala eskutatik. Eguna argitzean, Hondarribiko lakeak miatuko ditut, eta orduan sartuko zarete zeruan. Bitartean, zaudete atarian, gaueko iparraizeak dakarren besarkada zorrotza ahogozatzen!!!!



Jaietako egun guztietan adin guztientzako jardunak antolatu dira. Hortaz gain, irailaren 7an Enrique Albizu margolariari hiriko urrezko domina eman zitzaion.



AMA GUADALUPEKOA GARAILE KONTXAN

*Epaileek Oriok aurkeztutako inpugnazioa onartu eta horregatik Pedreña kanporatu zuten.

*TKEko lau bandera, Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketa eta saririk haundiena lortu du Hondarribiak. Gehiago ezin.

Denboraldia borobildu zuen Hondarribiak igandearen 11n Donostian, Kontxako Bandera irabazita. Ama Guadalupekoak urteko estropadarik garrantzitsuena irabazi zuen sekulako estropada egin eta Astillerori 20 segundo kendu zizkiolako amaieran. 37 urteren ondoren Ama Guadalupekoa nagusi Kontxan. Halere, itsaso zakarrak, haizeak, Oriok Pedreñaren aurka jarritako inpugnazioak eta epaileen azken erabakiak baldintzatu zuten nola estropada hala azken emaitza ere. Izan ere, bi igandeetako denborak batuta, Pedreña izan da ontzirik azkarrena. Baina epaileek Orioren inpugnazioa onartu zuten, eta banderarik preziatuena Arrantzaleen Hermandadean dago.

Ikaragarritzko ongietorria egin zitzaien arraunlari eta elkarteko ordezkariei. Hauek dira egun hortako irudirik ederrenak.

Zorionak Ama Guadalupekoari!!!





ARGAZKIAK:
ANDONI



Igaro dira beste urte betez herriko jaiak. Udalak herriko elkar-teekin jarduerak asko antolatu zituen, eta herritarrek partehartzen haundia izan dute. Zorionak denei eta datorren urtera arte!



Hondartza kiroldegiak negurako ikastaro ugari antolatu ditu

Uda igarota, udazkena eta negua iristen denean gehienoi nolabaiteko tristura sartzen zaigu. Hala ere, tristura hori uxatzeko gauza asko egin daitezke, horien artean Hondartza Kiroldegiak antolatzen duen ikastaro zerrenda luzean izena eman eta parte hartu.

Kiroldegiak kirol jarduera eta ikastaro ugari antolatu ditu bazkide diren eta ez direnei begira. Ia 6000 bazkide ditu Kiroldegiak, eta hauentzat zein abonatuak ez direnentzat ere egitasmo zabala prestatu da aurten ere.

Gazte eta helduei zuzendua, hau da, 16 urtetik gorakoentzat, hainbat diziplina pentsatu dira. Iraupenaren arabekoak kategoriren ezarri dira, batzuk urte osoko ikastaroak izango direlarik eta besteak hiru hilabetekoak. Urte osokoan barnean, mantentimenduzko gimnasia, aeronika eta yoga daude. Hiruhilabetekoak aldiz, aquagima, igeriketa,

tenisa, padela, cycling, pilates (estiramendu eta malgutasun haundia lortu asmoz), gap (aerobikaren familiako kirola) eta areto dantzak eskaintzen dira.

Aukera haundia haurrentzat

Txikientzat ere, hiruhilabeteko eta urte osoko diziplinak eskaintzen dira. Lehenen artean, haurtxoen igeriketa (6tik 20 hilabetera) eta igeriketa daude (3tik 16 urtera). Urteko jardueretan ordea, maila altuko igeriketa (3tik 16ra), igeriketa estola (16 urtetik beherakoentzat) eta tenisa daude



Jende ugari hurbiltzen da kirola egitera

Izena emateko epeak irailaren 12an zabaldu ziren zenbait jardueratan. Tenisean eta haurren igeriketan ordea irailaren 21ean. Hala ere, informazio gehiago jaso nahi duenak 943 647137 telefonora dei dezake edota bertatik pasa goizeko 8.00etatik gaueko 22.00ak arte. Ordutegi aukera faltagatik ez da izango behintzat!

eukeni optika

Hendaiako gurutzea



Koldo Ortega

Gaur, irakurle, beste aldeko altxor txiki edo handi bat, Hendaiako gurutzea, ekartzen dizugu gure lantxo honetan. Ez da lehendabiziko aldiz gure aldizkarian eta, agian ez da azkena izango, zeren Txingudiko Hiria gero eta metafora gauzatuago dugu.

Askotan urrutira joaten gara historiako altxorren bila hurbil ditugun ezagutu gabe. Horregatik, gaurko gaiaren ekarpena: munduko hainbat turistak eta adituk bisitatzen duten monumentua zuei jakinaren gainean jartzea. Izan ere, Hendaiako Bixintxo elizaren ondoan aurkitzen den gurutzea ez da edozein gurutze, baizik eta munduko gurutze misterioriotzuenetako bat adituen arabera.

Manuel Elgorriagari esker liburu berri bat irakurtzeko aukera izan dugu: Fulcanelli et le mystère de la croix d'Hendaye. Liburuaren egilea Axel Brücker dugu. Axel hau Legase barku armadoren familiaren ondorengoa da eta, dela hogei urte, Parisuko Mac-Mahon zinema zuzentzen du.

Axel Brücker- ek Fulcanelli, XX. mendeko alkimista ospetsua, hartzen du gidari. Izan ere, Fulcanellik, 1925 ean, Katedralen misterioa idatzi zuen, eta liburuaren bigarren edizioan, 1957an, honako kapitulua aurkitzen da: Hen-

daiako gurutze ziklikoa. Liburu honen eragina nabarmen dugu ezkerotik: mundu osoko filosofo, astronomo, ikertzaile, jakintsu, masoi eta alkimistak Hendaiako gurutzearen misterioak argitzen saiatu, saiatzen eta, dudarik gabe, saiaturiko dira.

Hori gutxi balitz, dela gutxi, Estatu Batuetan, liburu mardul bat argitaratu da: The cross at Hendaye (Hendaiako Gurutzea): Monu-

ment to the end of time

(Denboraren amaiarekiko monumentua). Liburuaren idazleak Jay Weidner eta Vicent Bridges ikertzaileak ditugu.

Aipaturiko lanen berri ematen saiaturiko gara lerrootan, hori bai, hainbat ikuspegi exoterikoak baztertuz eta funtsezkoa jakinaraziz.

Gurutzearen deskribapena

Entzute handiko gurutze hau Hendaiako San Bizente (Bixintxo baita) elizaren hegoaldean kokatuta dago gaur den egunean. Lehendabiziko kokapena Eliza ondoan zegoen kanposantuan, Belzenian, zegoen,



Gurutzea San Bizente elizaren ondoan dago



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Aldi Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

Aldizkari honen jaietako alean, Hondarribiko Aireportuaren mendurrenari buruzkoa, akats bat dela eta ahortzi egin zitzaizgun argazki haien egilea nor zen jartzea. EMILIO REDONDO izan zen argazki historiko haiek utzi zizkiguna. Mila esker eta barkatu!

gero Eliza ondoko enparantzara eraman zuten eta, azkenean, gaur dagoen lekuan kokatu zuten, hau da, Elizaren hegoaldean, Errepublikan enparantzaren aurrean eta Hendaia Udaletxearen alboan.

Gurutzea, Harritzkoa eta antza guztien arabera XVII. mendekoa, bi mailen, gainean datza eta zuhaitzez inguratuta dago. Gurutzearen zatian hauexek dira: zokalo edo idulki bat, zutabea eta gurutzea bera, bere altura osoa 5 metro inguruan izanik. Goiko zatia, hau da, gurutzea bera greko itxurakoa da, hiru zatiz osatua eta aurreko eta atzekoa aldean zizelkatuta dago; aurrean eta goian San Andreseko gurutze txiki-txikia eta beherago, beso luzean honako testua: OCRUXAVES, lehendabiziko lerroan, eta PESUNICA, bigarrenetan. Dударик gabe, esaldi hau: O CRUX AVE! SPES UNICA. Gurera ekarriz: AGUR GURTZE! ITXAROPEN edo AMETS PAREGABE.


Gurutzearen atzekoaldean INRI, hau da, Iesus Nazarenus Rex Iudeorum zizelkaturik irakur daiteke. Gure deskribapenari jarraituz honakoa dugu: beheko aldean, zokaloan, eta mendebaldean, eguzki giza aurpegiduna, hamasei lerroz eta lau izarez inguratuta; iparraldean, elizari begira, kruasan itxurazko ilargia, albora begira, bere sudur, aho eta begiaz apaindurik; hegoaldean zirkulu obal baten barruan lau A aurkitzen dira (batzuentzat gizateriaren lau aroak: urrezko, zilarrezko, brontzezko eta burnizkoa) eta, azkenean, hormaren kontrako aldean, zortzi besoko izar handi bat (hainbatentzat eguzki, ilargi eta izarrek inperioaren sinboloak).

Zokalo hau kontuan hartuz, hainbat alkimistak, filosofo eta abarrek Hendaia gurutze ziklikoa bataiatu dute gure gurutzea. Ziklo horretan munduaren iragana eta geroa ere ikusten omen dute.

Gure uste apalean, gurutze bitxia da (beste "ahizpa" Saran dago), beti ere, Kristaia, kanposantuan kokatua haseran eta gero gaurko tokira eramana. Noiz eta nork egin?

Noizkoa den XVII. mendekoa dela esan dezakegu, bere ezaugarri artistikoak kontuan hartuz eta, tamalez, beste galderari erantzuteko ziurtasunik ez daukagu. Hainbat ikertzailek Mazarin kardinalaren aginduz eraiki zuten gurutzea, Pirineoetako bakea edota Faisanen irlaren Ituna (1659) gogoratu eta ospatzeko.

Gure ustez, zaila, beharbada ezinezkoa, izango da nork egin eta ordaindu zuen gurutzea, Hendaia artxibo guztiak, udarenak zein elizarenak, Frantziako Iraultzaren denboretan (1793) hain zuzen jere baitzituzten. Hala ere, hain hurbil izanik, bisitatzea merezi du, zeren, dugarik gabe, gizon-emakume guztien ondarea baita.



Gurutzeak inskripzio ugari dauzka



HONDARRIBIAN, ONDO PASA BAINA EZ PASA!

Lerro hau erabili dugu, festa eta dibertsio garaiko kontsumoari lotutako arriskuak gutxitzeko helburuarekin, herri osoari zuzendutako kanpainan.

Honek izan dezakeen inpaktua eta eraginkortasuna aldez aurretik baloratzeari arriskutsua da, hau idazte-rakoan oraindik ez baitira jaiak hasi. Hala ere, hiritar-ren lehen inpresioak onak dira.

Kanpaina hau antolatzerakoan gure taldearen kezke-
tako bat horixe izan da, alkoholari eta beste zenbait
sustantziari buruzko informazioen bidez hausnarketa
txiki bat, edo gutxienez iritzi trukaketa bat sortzea.
Prebentzioan badakigu informazioa ematea ez dela
nahikoa, nahiz eta erabakiak hartzeko edo osasuna-
rentzat arriskutsuak diren egoeren aurrean babeste-
ko ezinbestekoa izan. Horregatik behar ditugu erre-
akzioa sortzen duten eta pentsarazten duten
mezuak.

Uda honetakoa ez da lehenengo aldia. Hainbat aisialditan ekimenak planteatu izan ditugu. Horiek izandako inpaktuak, eta besteak beste 2005eko San Markos egunekoak, eta uda garaiko jaietan arriskuak gutxitzeko kanpainak antolatzeke dugun ohiturak, ekitaldi trinkoago bat egitera bultzatu gaitu.

Ez dugu bakarrik egin. Departamentuen arteko elkar-lana zabaldu dugu. Kanpaina honetan parte hartu dute Euskara, Gazteria eta Kultura arloek. "Jaietan-jai" elkartearen partaidetza ere izan dugu mezua zabaltzerakoan, eta baliabide berezi moduan, gure taldearekin aritzen den Verano Gonzalez publizitate diseinatzailearen aholkularitza izan dugu.

Kanpainak zabaldu nahi duen informazioa, hauxe da:

"Dibertitzeko garaian eta alkoholaren kontsumoaren aurrean, erabakiak hartzea.

"Kontsumitzeko moduari buruzko informazioa: nahasketak, sexuaren eta adinaren arabera ondorioak.

"Alkoholaren kontsumoari loturiko arriskuak eta gomendioak. Ibilgailuak gidatzeari buruzkoak, lege-ko inplikazioak, etab. alkoholaren eragina harreman pertsonaletan.

Bere zabalkunderako hainbat euskarri erabili dira.

Zabalkunde


handi batetarako, festetako programa, euskarri grafikoak formatu desberdinetan, eta horretaz gainera, 12 - 18 urte bitarteko gazteentzako aukeraturako informazioa daramaten kamisetak.

Seguruenik,
aldizkari hau
kaleratzean, ira-
kurleek gure
k a n p a i n a r i
buruzko iritzi
sendoago eta
argiagoa izango
dute.



Prebentzioak atera duen informazioa gazteei zuzenduta dago.

Zuen iritzia emateko idatzi ezazue ondoko posta elektronikora ***iritziak@prebentzio.com*** eskerrik asko!



Hondarribiko Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzua.



SAINDUA GAZTELEKUAK HAINBAT IKASTARO ANTOLATU DITU

Urtero bezala, Saindua Gaztelekuak 12 eta 29 urte bitarteko gazteentzat ikastaro desberdinak antolatu ditu neguko udazkeneko hilabetei begira. Izenemateak irailaren bigarren hamabostaldian egin behar dira eta urriaren 3an hasiko dira.

Ekintzak aurrera atera daitezen gutxieneko kopurua 8 partaidekoa izango da. Ikastaroen

iraupena 10 eta 11 astekoa izango da, astean behin emango dira eta ordu t'erdi edo bi ordutako saioak izango dira.

Gaztelekutik antolatu diren ikastaroak baxua, gitarra, kapoeira, sabel dantza, funky eta clown dira. Hortaz gain, zenbait irteera antolatu dira, mikologiko bat Nafarrora, rafting-a praktikatzera Bidarraira eta Paint Ball delakoa azaroan. Azke-

nik, aipatu ere Play Station 2 txapelketa bat hasiko dela urriaren 22an eta ping pongeko beste bat azaroaren 19an.

Dena den, informazio gehiago nahi duenak Saindua Gaztelekura hurbiltzea besterik ez du, edota 943 643198 telefonora hots egin edo Gazte Informazio Bulegora hurbildu.

Aktibitatearen programa

URRIA, AZARDA ETA ABENDUA	
E K I N T Z A K	
BAXUA Urriaren 6tik aurrera ostegunero, Orduetgia: 19:00etatik 20:00etara.	GITARRA Urriaren 4tik aurrera astazartara, Orduetgia: 19:00etatik 20:00etara.
KAPOEIRA Urriaren 6tik aurrera ostegunero, Orduetgia: 19:00etatik 20:00etara.	FUNKY Urriaren 7tik aurrera ostialdian, Orduetgia: 19:00etatik 20:00etara.
SABEL DANTZA Urriaren 3tik aurrera asteleheneko, Orduetgia: 19:30etatik 20:30etara.	CLOWN Urriaren 5tik aurrera asteazkeneko, Orduetgia: 19:00etatik 20:00etara.
MONOZIKLO tailerra Urriaren 5, 19 eta 26an 19:30etan.	GOZOGINTZA tailerra Urriaren 7, 14 eta 21ean 19:30etan.
IRTEERAK MIKOLOGIA NAFARROAN Azaroaren 8an, 7 lagunentzako tokia. Gofa: 20€ Omelette bakoitzaren 12an 19:30etan.	TXAPELKETA PLAY STATION 2 TXAPELKETA Urriaren 22tik aurrera, larunbetea 17:00etan.
RAFTING BIDARRAIN Azaroaren 29an, 7 lagunentzako tokia. Gofa: 20€ Omelette bakoitzaren 12an 19:30etan.	PING PONG Azaroaren 19tik aurrera, larunbetea 17:00etan.
PAINT BALL Azaroaren 12an, 8 lagunentzako tokia. Gofa: 30€ Omelette bakoitzaren 12an 19:30etan.	

I Z E N - e m a t e a k

12-29 urte bitarteko laguntza, leste ari havi eta IRAILAREN 30a baino lehen Saindua Gaztelekura edo Gazte Informazio Bulegora eraman.

Parte hartu nahi duzun saioetan iza batetik adierazi.

IKASTARODAK

Baxua
 Gitarra
 Kapoeira
 Sabel dantza
 Funky
 Clown

IRTEERAK

Mikologia
 Rafting
 Paint ball

OTXOA

JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
 Tel. 943 64 16 84
 20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
 Tel.: 943 64 62 82
 HONDARRIBIA

Bordari Satarka Lehiaketara aurkezteko epea azaroak 15 arte zabalik

Zabalik dago jadanik XXII. Bordari eta Satarka Literatur Lehiaketa. Urtero Hondarribiko Udaleko Euskara Batzordetik antolatzen den ipuin eta olerkien lehiaketa honetan parte hartu nahi duenak ia bi hilabetetako epea dauka lana entregatzeko, azaroaren 15eko eguerdiko hamabietan amaitzen da eta.

Bi lehiaketa desberdin daude, Bordarirena ipuinei zuzendua eta Satarkarena olerkiei. Lehiaketa bakoitzean bi maila desberdintzen dira, hain zuzen adin nagusikoak diren eta ez direnentzat.

Hemezortzi urtetik gorakoek A maila osatuko dute bi lehiaketetan. Kasu hauetan garaileak 800 euroko saria eta oroigarri bat jasoko du. Bigarren sailkatuak aldiz, 400 euro eta oroigarria eskuratuko ditu. B mailan parte hartzen dutenentzat, sariak 400 eta 250 eurokoak izango dira. Hortaz gain, Hondarribiko lan onenari beste sari bat gordetzen zaio atal bakoitzean.

Inoiz argitaratu gabeak

Aurkeztutako lanek aurretik argitaratu gabeak izan beharko dute, eta gaia librea. Hortaz gain, zenbait baldintza bete behar dira lana baliagarritzat bezala hartua izan dadin. Helduen mailan, ipuinak gutxienez hiru orrialdeko luzera izango du eta gehienez hamarrekkoa. Olerkien kasuan, gutxienez 50 lerro izango ditu lanak, eta gehienez 150.

B mailari dagokionez, ipuinak 2 eta 6

orrialdeetakoa izan beharko du eta olerkiak ordea, 40 eta 120 lerrotakoa.

Idatzia Euskara Batzordean aurkezterakotan, beste zenbait baldintza bete beharko ditu egileak. Izenburua, egilearen izenordea eta bertakoa den edo ez zehaztea. Sobre itxi batean azalean, aurkezten den lanaren titulua eta egilearen izenordea jarriko da, eta barnean, garrantzizkoak diren beste zenbait datu gehitu beharko ditu: izen eta deiturak, helbidea eta telefono zenbakia.

Iazko edizioan, garaileen artean Jon Martin, Irati Goikoetxea, Itsaso Izagirre, Alaia Martin, Maite Salaberria, Ainara Elizondo, Mirari Garcia de Cortazar, Igor Olaskoaga eta Amaia Gezala izan genituen.

Joan den urteko irabazleak



TAO KI -FOOD: etorkizuneko elikagaia

Zure ametssetako elikagaia!

Etorkizuneko elikagaia!

TAO KI - FOOD: gizonentzat eta emakumentzat elikagai espezifikoa.

Etorkizuneko elikadura da, zure ametseta-koa. Bikaina da bere osasuna eta edertasuna zaindu nahi dituen eta bizitzeko kalitatea modu natural eta erraza batean hobetu nahi dituenarentzat.

Elikadura honen ezaugarriak hauek dira:

-Egokituta dago.

-Prestatzeko eta hartzeko erraza da.

-Organo bakoitzeko beharrak asetzen ditu, gaitasunak eragiten dituen sorburuak tratatzen eta beraien sintomak arintzen.

-Edozein osasun-tratamenduarekin bateragarria da.

-Adin guztientzat da.

-Modu oso azkar batean hobekuntza dauka eta %100eko eraginkortasuna du.

-Antsietatea kentzen du.

-Elikagai bizia, naturala eta begetala da.

-Beste terapia komplementarioen ondorioak hobetzen ditu.

Munduko elikagai beteena da.

Milaka urte dituen elikagai taoistiar hau gure gaur egungo zibilizaziora egokitu da, gizaki modernoek beharrak betetzen. Edozein len edo gizarte inguru hartzeko dieta baliogarria da. Bere elikagai eta indar ekarpenari esker, edozein janari mota hornitzen ditu, elikagai bizi 100 biologiko laborantze lehengaiekin prestatuta dagoelako. Elikagai hain beteta eta orekatuta ez duzu inoiz hartuko janari bakar batean. Honek zure elikadura txarra orekatzen eta zure beharrak asetzen lagunduko dizu.

Elikagai bizi bat da.

TAO KI-FOOD berorik gabe egina dago. Horregatik, bere propietate natural guztiak eta bizitzeko indarra mantentzen ditu. TAO KI-FOOD-ek janari prestatu bat baino 10 aldiz bizi indarra du. Bi edo hiru zopa-koilarakadekin indar fisikoa mantendu ahal da, nahiz eta janari bat ordezkatu.



Produktuak:

Elikagai biologikoak, frutak eta barazkiak, eguneko ogia, gozokiak, tofu-a, seitan-a, hanburgesak, oliabolia, sesamo-a, ekilorea, txekor haragia, oliaskoa, txerria, arkumea, txerrikiak eta estebete begetalak. Edariak, zukuak, ardoak, caba, garagardoa. "Birkenstock" betulazeo zapatak. Umetxo biologiko eta emakume haundunentzako produktuak.

Fitoterapia, belardenda, Bach loreak, kosmetika (Logona, Sante-a eta Aloe Pura).



ETXEBIZITZETARA ERAMATEN DUGU

HENDAYA - HONDARRIBIA - IRUN

Santiago Kalea, 33 - 20280 HONDARRIBIA

☎ 943 64 14 50 ✉ txuntxu@terra.es



. Soja esnea: 2 + 1	Dohain
. Abena esnea: 12+1	Dohain
. Arrozeko esnea: 5+1	Dohain
. Pate begetala: 3+1	Dohain
. Espageti biocop: 2+1	Dohain
. Erregina-jele : 2+1	Dohain
. Eguzkirako kremak: 3+1	Dohain
. Fruitu zukuak: 2+1	Dohain
. %10 eta 20ko deskontua produktu batzuetan.	

ZER BERRI ONGI ETORRI BIDEO KLUBEAN



DVD

EL ESCONDITE


Bere emaztea hil ondoren, gizon bat depresio handi batean erortzen da. Berak bakarrik bere alaba zaindu behar du. Era berean, hiritik joan eta toki lasaiago bizitzera joaten dira. Neska alegiazko lagun batean pentsatzen hasten da. Baina azkenean, jolas bat bezala hasi dena ametsgaizto batean bihurtzen da.



DVD

LA INTERPRETE

Filme honetako protagonista NBE-ra joaten den itzultzaile bat da. Han afrikar presidente bati egiten dizkien mehatxuak ikusiko du. Horregatik, bera hiltzaileen biktima ere bihurtuko da.



DVD

WHITE NOISE

Michael Keaton gizon etsi baten paperan sartzen da. Honek bere emaztea galdu du baina EVP fenomenoak aurkituko du. Honekin bere emaztearekin hitz egiteko aukera izango du. Emazteak esango dio bera hil zuen psikopata orain daukan biktimei ohartarazi beharko diela.



DVD

SAHARA

Filme hau Sahara basamortuan kokatzen da. Bi esploratzaileek bere bizitzako abentura garrantzitsuenak biziko dute altxor baten bila. Han doktora batekin aurkituko dira eta berarekin lana egingo dute bilatzen dituzte altxorra heriotza batzuen erruduna izan daitekelako.



DVD

HITCH, ESPECIALISTA EN LIGUES

Komedia honetan Will Smith "Doctor amor" -en paperan jartzen da. Diru ordez, gizon batzuei lagunduko dizkie nola liluratu emakumeei. Baina, emakume bat ezagutuko du bere azken kasutan.



DVD

BE COOL

Berriro daukagu Uma Thurman eta John Travoltaren bikotea. Filme honetan legez kanpo dauden rap-eko talde batekin, errusiako mafiako handiki batzuekin, etorkizun handiko abeslariarekin eta rock bandekin borrokatu beharko dituzte.

VIDEO CLUB

ONGI ETORRI

/ Argazkien errebelatzea:

-Eskaintza 13x18

-Eskaintza 2x1

-Errebelatu zure argazkiak CD jasotzea formatuan

/ Argazkilaritzako materialak

Fotokopiak, fax bidali eta

/ CASIO Erloju eta Iratzargailuak

/ Zilarra: eraztunak, belarritakoak, kale, pultsea, piercing...

/ Bitxiak: urrez txapetuak, kalitate handikoak

San Pedro, 53 -bajo • Tel.: 943 64 41 53 • Fax: 943 64 47 01

20280 HONDARRIBIA

Gazteei zuzenduta berriak San Pedro kalean

PREBENTZIO.COM

Hondarribiko Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzuek aldizkari berri bat argitaratu dute Hondarribiko Gazteei bideratua.

Euskeraz eta erderaz idatzirik gazteen-tzako informazioa interesgarria zabaltzen du.

Etorri eta hartu zurea!

GAZTEMANIAK

Kontzertuak, cd lehiaketak, musika gida eta agenda jakin nahi baduzu, sartu:

www.gaztemaniak.net

HONDARRIBIKO KZ GUNEA

Kz guneko web orrialdean

www.kzgunea.net

Zure eskura aurki ditzakezu hileko programazioa
Sartu eta aukeratu zure gustokoa!

**Hondarribiko Kz
Harresilanda, 5 - bajo
HONDARRIBIA (GIPUZKOA)
Tel. 943640064**

1/09/2005-tik 30/09/2005-ra
astelehenetik ostilara:
9:00 -13:00
16:00 -20:00.

**Gazte
Informazio
bulegoko ordutegi
berria.**

Astelehenetik ostiralera.
16:30 - 20:00
Larunbatetan.
10:00 -13:00

**"HONDARRIBIKO HIRIA"XXIX.SASKI-
BALOI TXAPELKETA-TATE SAEZ
VII.MEMORIALA**

Urriak 1ean arratsaldeko 19,00etan
Hondartza Kiroldegian.



ONDARTZ EDERRA

ONDARTZ EDERRA

Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56

**LA HUERTA
DEL PAÍS**



Fruitu eta barazkiak
freskoak eta
kalitatezkoak

www.lahuertadelpais.es

Zein zen etxe honen izena ?



Iritsi da berriz ere bi pertsonentzat gordetzen den afaria zozketatzeko ordua. Jaiak igaro ondoren, herritar guztien animoak apur bat behera egiten du, horregatik, zer hobe etxetik kanpora afaltzeko aukera bat edukitzea. Hala ere, hori edukitzeko, orrialde honetan egiten dugun galderari erantzun eta zorte apur bat edukitzea falta da. Ea horrela den.

Gure herrian zegoen baserri baten izena galdetzen dugu. Duela gutxi bota egin zen baina urte askotan bertan egon da, hiritar denek noizbait bizitza osoan bisi-tatzen dugun gunen baten ondoan. Baina galdetzen duguna baserriaren izena da.

Aurreko alean egin genuen galderari erantzun egokia eman dutenen artean, **Ainara Elizondo Lizarraga** izan da Beko Errota jatetxean bi pertsonentzako afa-ria irabazi duena. Erantzuna urriaren 10 aurretik bidali beharko da Udal Euskara Batzordera.

SAGARDOTEGIA JATETXEA

*Horra hor goian errota
irina pur pur ihota
ondo jan eta edan paketsu eta alai
hor duzue Beko-Errota*



JAIZUBIA • Tel. 943 64 31 94 • 20280 HONDARRIBIA

Almirante Alonso kalea XX.mende hasieran



Berrirero ere Hondarribiko Udaleko Udal Artxibategira jo dugu bertan dauden altxor ikaragarriak irteera bat emateko asmotan. Oraingo honetan Almirante Alonso kalearen ikuspegi bat dakarkizuegu. Nahiz eta aldaketarik egon den, hiriko beste zenbait txokorekin konparatuta ez dira hainbestekoak izan eraldaketa hauek.

Kontuan izan behar da XX. Mendearen hasieran, eta askoz aurretik ere, inguru honetan arrantza kaia zegoela eta arrantzaleek bere harrapaketak bertan deskargatzen zituztela. Sekulako bizia zeukan inguru honek arrazoi honegatik.

Etxean horrelako altxorak dituen jendeak, eta gure aldizkarian argitaratuak ikusi nahi dituenak, Hondarribiko Udaleko Udal Euskara Batzordera bidaltzea besterik ez du, gustora asko argitaratuko ditugu eta. Eskuz edo posta elektronikoz ere bidali dezake nahi duenak. Horretarako helbidea honako hau da: euskara@hondarribia.org



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047

**ARROKA
BERRI**



RESTAURANTE

Hiriko Bidea, nº6 - 20200 Hondarribia
Tel: 943 642 712 - Fax: 943 641 105
www.arroka-berri.com

Abuztua2005

FERMIN OLASKOAGA

JAIOTZAK ABUZTUAN

5ean: ANDER Villanueva Portu, Burgo Luis Antonio eta Hondarribiko Itziaren semea

7an: JOSE MARIA Isasi Larrinaga, Donostiako Jose Antonio eta Hondarribiko Pilaren semea.

9an: MAORE Tolosa Peña, Donostiako Juan eta Tolosako Maria Dolore-sen alaba.

11an: NAHIA Gaztelumendi Unsain, Oiartzungo Juan Manuel eta Hondarribiko Begoñaren alaba

11an: AIMAR Txabarri Aduesse, Irungo Oscar eta Saint Germain en Laye-ko (Frantzia) Anne France-ren semea.

16an: BENAT Romeo Emazabel, Hondarribiko Bernabe eta Amaia-ren semea

17an: JOHN Jongbloed Aseginola-za, Denhelder-ko (Holanda) Marco Simon eta Donostiako Maria Eugenia-ren semea.

19an: YERAY Aguado Plamadeala, Donostiako Francisco Javier eta Murmausk-eko (Errusia) Victoriaren semea.

22an: INGE Gallo Hernandez, Irungo Didaka eta Hondarribiko Martaren alaba.

22an: ANDER Martinez Sagarzazu, Irungo Jose Luis eta Hondarribiko Maria Teresaren semea.

22an: TAHA Sliti Sliti, Beja-ko (Tunisia) Moncef Ben Ali eta Neilaren semea.

23an: JULEN Goñi Lizarralde, Irungo Luis Maria eta Hondarribiko Idurre-ren semea.

24an: IBAI Lasa Berrueta, Irungo Xabier eta Maidereren semea.

25ean: NAIARA Calles Rojas, Salamancako Jose Adolfo eta Kolonbiako Liliana Patriciaren alaba.

30an: MARTXEL Lizaso Eguren, Hondarribiko Javier Maria eta Irungo Silviaren semea.

HERIOTZAK ABUZTUAN

1ean: FELIX Gonzalez Soto, Papatrigi-koa (Avila), 48 urte, Marisantzenea kalean.

8an: MARIA NATIVIDAD Ortiz de Urbina Fernandez, Zizurkilgoa, 61 urte, Santa Engrazia kalean

10an: MARCOS Emazabel Goñi, Hondarribikoa, 82 urte, Bernat Etxepare kalean.

17an: JOSE Etxebeste Olaskoaga, Hondarribikoa, 86 urte, Arrantzale Auzoan.

25ean: ANTONIO Paz Agredo, Amer-koa (Girona), 67 urte, Juan de Laborda kalean.

30an: JAVIER Olaskoaga Enrique, Hondarribikoa, 82 urte, Bernat Etxepare kalean.

31an: CARMEN Olaso Carabes, Hondarribikoa, 81 urte, San Pedro kalean.

. LENTZERIA ARROPA
. HAURRENTZAT ARROPA

Santiago Kalea, 21 Tel.: 943 64 17 65
20280 HONDARRIBIA



EZKONTZAK
ABUZTUAN

6an: XABIER Sagarzazu Arbelaiz, Hondarribikoa, eta NURIA MARIA Herrero Paredes, Madrilekoa.

12an: RUBEN Rivera Ortiz, Donostiakoa, eta OLATZ Egimendia Olazabal, Hondarribikoa.

13an: RODOLFO Duran Iriarte, Donostiakoa, eta IOSUNE Ramirez Tanco, Hondarribikoa.

27an: MIKEL Aristizabal Irastorza, Irungoa, eta ESTIBALIZ Gaztelumendi Zalakain, Oiartzungoa.

27an: FRANCISCO Diaz Elzo, Hondarribikoa, eta IDURRE Etxaide Etxaburu, Hondarribikoa.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK

Altak: Jaiotzak: 14, eta kanpotik etorriak: 56
Bajak: Hildakoak: 9, eta herritik joanak: 40

ABUZTUKO EGURALDIAREN DATUAK.
(Hondarribiko aireportutik jasotakoak).

Temperatura guztiz gorena: 34,9º C, hilaren 30an.

Temperatura guztiz behearena: 13,4º C, hilaren 24an.

Bataz besteko tenperatura: 21,3º C.

Bataz besteko hezetasuna: % 70

Egun trumoiatsuak: 6 egun

Behe-lainotsu egunak: 2 egun

lhintz egunak: 7 egun

Presio guztiz gorena: 1027 milibar, hilaren 3an

Presio guztiz behearena: 1004 milibar, hilaren 9an

Bataz besteko presioa: 1018,6 milibar

Egun euritsuak: 14 egun.

Egun euritsuena: hilaren 20an

17,8 litro.

Euri-litroen kopurua: 50,6 litro.

Egun haizetsuena: 20a,48

Km/orduko eta 350º NW.

Ordu eguzkitsuen kopurua: 250,9 ordu.

ABUZTUKO UDAL LIBURUTEGIKO
DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 223 euskaraz, 1056 gaztelaniaz eta 28 bestelakoak. Guztira: 1307 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 9 euskaraz, 131 gaztelaniaz eta 4 bestelakoak. Guztira: 145 liburu.

Irakurle kopuruak: 33 gizon eta 50 emakume. Horietatik 61 heldu eta 22 haur. Guztira 81.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:

Euskeraz: MOSTEIRO, Carlos.- Irene maitatzeko liburua.

Gaztelaniaz: IBAÑEZ.- Mortadelo y Filemon.

Helduak:

Euskeraz: GARZIA, Joserra.- Kurrin-Kurrin vitae: maisu baten ikarak eta ostikadak.


Gaztelaniaz: BALDACCI, David.- El Juego de las horas

ARRANTZALE KOFRADIAN ABUZTUAN
SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK:

Hegaluzea (Thunnus thynnus): 979.242 kilo.

Hegalaburra (Thunnus alalunga): 312.086 kilo.

Moja (Thunnus obesus): 179.366 kilo.



- - FONTARRABIE (Espagne)
Les Remparts - BR - 2987